# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA, HERRIZAINGO SAILA ETA EKONOMI ETA OGASUN SAILA

### 1891

144/1993 DEKRETUA, maiatzaren 18koa, Euskal Autonomi Elkarteko segurtasun-lanak egiteko informatika zerbitzu eta ondasunen kontratatziorako arau zehatzak ezartzen dituena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen gehigarrizko xedapenetatik hamalaugarrenean ezarritakoaren arabera, Autonomi Elkarteko Administrazioari dagozkion segurtasun-lanak egiteko diren komunikazio eta informatika zerbitzu eta ondasunak erosteko, inorentzakotzeko, alogeratan hartzeko eta zaintzeko ekintza eta kontratuak, Jaurlaritzaren Dekretuz arautuko dira berariaz.

Aurrikuspen horrekin, iharduketa publikoko alor horretako ezaugarri diren berezitasunei erantzuten zitzaien; gaur egun, zerbitzuak era egokian emateko beharrezko informatikazko ekipoetan ere antzematen dira berezitasunok.

Dekretu honen helburua, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean aurrez ezarritako agindua betetzea da hein batean behintzat, eskuduntza multzo berezi baten bidez, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioari dagozkion segurtasun-lanak egiteko diren informatika zerbitzu eta ondasunak erosteko, inorentzatzeko, alogeratan hartzeko eta zaintzeko administrazio mailako kontratuak izapidetu, esleitu eta gauzatzeko kontratazio mahaia sortzea barne, hori egiteko erantzunkizuna Herrizaingo Saileko organuek izango dutelarik.

Berarizko araubide hori ezartzeaz gain eta horren edukinaz gain, Eusko Jaurlaritzak informatika alor horretan burutu ditzan ihardunetan eskudunak diren organuek ere parte garrantzitsua jokatzen dute urrats horiek emateko orduan, Jaurlaritzaren informatika ondasun eta zerbitzuen alorreko ihardunetan beharrezko den koordinaketa bermatzeko.

Ondorioz, Herrizaingo Sailburuaren, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren eta Ekonomi eta Ogasun Sailburuaren proposamenez, Administrazio mailako Kontratazioetarako Aholku Batzordearen txostena ikusita, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko maiatzaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

# Disposiciones Generales del País Vasco

## DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA, REGIMEN JURIDICO Y DESARROLLO AUTONOMICO, INTERIOR, Y ECONOMIA Y HACIENDA

### 1891

DECRETO 144/1993, de 18 de mayo, por el que se establecen normas específicas para la contratacion de bienes y servicios informáticos para el desarrollo de las actividades de seguridad del País Vasco.

La disposición adicional decimocuarta de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, prescribe el establecimiento de una regulación específica, que debe ser aprobada mediante Decreto del Gobierno Vasco, sobre adquisición, enajenación, arrendamiento y mantenimiento de bienes y servicios informáticos y de comunicaciones destinados al desenvolvimiento de las actuaciones de seguridad pública, que la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene encomendadas.

Esa previsión se hacía eco de las especificidades que caracterizan ese sector de actividad pública, las cuales se proyectan también sobre el equipamiento informático necesario para servirla adecuadamente en los tiempos actuales.

El presente Decreto pretende, de manera parcial, dar cumplimiento al mandato precedente de la Ley de Policía del País Vasco, a través de la determinación de un particular entramado competencial, incluída la creación de una mesa de contratación en orden a la tramitación, adjudicación y formalización de los contratos administrativos para la adquisición, arrendamiento, mantenimiento y enajenación de bienes y servicios informáticos destinados a procurar el desenvolvimiento de las actividades de seguridad correspondientes a la Administración de la Comunidad Autónoma, residenciando tales responsabilidades en los órganos del Departamento de Interior.

El establecimiento de ese régimen específico y su contenido se compatibilizan con intervenciones significativas en los procedimientos correspondientes, de los órganos que tienen atribuidas competencias en la materia de informática sobre el conjunto de esa actividad en el Gobierno Vasco, en orden a garantizar la necesaria coordinación del conjunto de actuaciones del Gobierno en el campo de los bienes y servicios informáticos.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Interior, Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y Economía y Hacienda, a la vista del informe de la Junta Asesora de Contratación Administrativa y previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión de 18 de mayo de 1993,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– 1.– Autonomi Elkarteko Administrazioari dagozkion segurtasun-lanak egiteko diren informatika zerbitzu eta ondasunak erosteko, inorentzakotzeko, alogeratan hartzeko eta zaintzeko administrazio mailako kontratuetarako Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko organu ezberdinek dituzten eskuduntzak zehaztea da Dekretu honen xedea.

2.– Dekretu honen ataletan zehazten diren eskuduntzak apirilaren 11ko 77/1983 Dekretuaren 2. atalean aurrikusten diren kontratuei dagozkiela ulertuko da, Dekretu horren 3. atalean jasotako ondasun eta zerbitzuei dagozkienetan, eta aurrekontu eta ondare mailako kontularitza, lanarigoaren kudeaketa, lurraldearen informazio sistema, Eusko Jaurlaritzako teleprozesoen sarea, agirien datu baseak bezalako informatikazko sistema horizontalak, edo Jaurlaritza Kontseiluak halakotzat jo ditzanak salbu.

*2. atala.*– 1.– Dekretu honetan xedatutako salbuespenen kaltetan gabe, Herrizaingo Saileko organuei dagozkie 1. atalean jasotako kontratuen prestaketa, izapideketa, esleipen, gauzaketa eta egiterapenari buruzko eskuduntzak.

2.– Dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Herrizaingo Sailburua izango da kontratazio organua.

*3. atala.*– 1.– Kontratazio mahaia sortzen da Herrizaingo Sailean, indarrean dagoen legeriak Dekretu honetako 1. atalean jasotako kontratuetarako organu horiei izendatzen dizkion eginkizunak betetzeko.

2.– Honako hauek osatuko dute kontratazio mahaia:

a) Lehendakari: Herrizaingo Saileko ordezkari bat izango da.

b) Bokalak:

– Herrizaingo Saileko bi ordezkari, horietako bat ELATeko Informatika Arloko teknikaria izango dela.

– Herrizaingo Saileko legelari bat.

– Ekonomi eta Ogasun Saileko Kontuhartze Zuzendaritzako ordezkari bat.

– Ekonomi eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat.

– Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzako ordezkari bat.

c) Idazkari lana Herrizaingo Saileko langileren batek egingo du.

*4. atala.*– 1.– Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren 1990eko urriaren 2ko Aginduan argitara emandako Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1990eko uztailaren 17ko akordioan ezarritakoaren arabera, Herrizaingo Saileko zerbitzu eskudunek izango

DISPONGO:

*Artículo 1.*– 1.– Es objeto del presente Decreto la determinación de las competencias de los diversos órganos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en orden a la contratación administrativa relativa a la adquisición, arrendamiento, mantenimiento y enajenación de bienes y servicios informáticos destinada al desenvolvimiento de actividades de seguridad correspondientes a la Administración de la Comunidad Autónoma.

2.– El ejercicio de las competencias que se determinan en los artículos del presente Decreto se entenderán referidos a los contratos previstos en el artículo 2 del Decreto 77/1983, de 11 de abril, en relación con los bienes y servicios señalados en su artículo 3 a excepción de los referentes a sistemas informáticos horizontales tales como los de contabilidad presupuestaria y patrimonial, gestión de personal, sistema de información del territorio, red de teleprocesos del Gobierno Vasco, bases de datos documentales o aquellos que se definan con tal carácter por el Consejo de Gobierno.

*Artículo 2.*– 1.– Sin perjuicio de las excepciones previstas en el presente Decreto corresponderá a los órganos del Departamento de Interior el ejercicio de las competencias relativas a los actos y acuerdos de preparación, tramitación, adjudicación, formalización y ejecución de los contratos a que se refiere el artículo 1.

2.– A los efectos de lo previsto en el presente Decreto el Consejero del Departamento de Interior se constituye en el órgano de contratación.

*Artículo 3.*– 1.– Se crea en el Departamento de Interior una mesa de contratación que desarrollará las funciones que el ordenamiento jurídico atribuye a tales órganos en relación con los contratos a que se refiere el artículo 1 del presente Decreto.

2.– La mesa de contratación estará compuesta por:

a) Presidente: que será un representante del Departamento de Interior.

b) Vocales:

– Dos representantes del Departamento de Interior, uno de los cuales será un técnico de la División de Informática de la U.T.A.P.

– Un letrado del Departamento de Interior.

– Un representante de la Dirección de Intervención del Departamento de Economía y Hacienda.

– Un representante de la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Economía y Hacienda.

– Un representante de la Dirección de Organización y Sistemas del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

c) Actuará como Secretario una persona al servicio del Departamento de Interior.

*Artículo 4.*– 1.– La elaboración de los pliegos de condiciones administrativas particulares, conforme establece el acuerdo del Consejo de Gobierno de 17 de julio de 1990, hecho público por Orden de 2 de octubre de 1990 del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarro-

dute administrazio baldintza partikularren plegua prestatzeko ardura, eta onartu kontratazio organuak onartuko ditu.

2.– Betekizun teknikoen pleguak ELATeko Informatika Arloan prestatuko dituzte, eta kontratazio organuak onartuko ditu Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzako txostena jaso ondoren. Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzak eskaera egiten denetik hamabost euneko epean eman beharko du txosten hori, horrela egiten ez badu baiezkoa dela ulertuko delarik.

3.– Proposatu den kontrataziorako Herrizaingo Saileko organuen eskuduntzei dagokienez, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzaren txostena ezezkoa bada, Herrizaingo Sailak Jaurlaritza Kontseilura eramango du eztabaida, han azter dezaten.

4.– Dekretu honetan aipatutako kontratazio espedienteetan ezarri beharreko legezkotasun txostenak Herrizaingo Saileko zerbitzu eskudunetan egingo dituzte.

*5. atala.*– Informatika ondasun eta zerbitzuen alorreko iharduketak koordinatzeko, Herrizaingo Sailak, hiru hilabetero, Dekretu honekin bat etorriz burututako kontratuen zerrenda eta herri segurtasun alorreko informatikazko plan eta programen egiteratzeari buruzko urteko txostena igorriko ditu Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzara.

*6. atala.*– Herrizaingo Sailak Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen xedapen gehigarrietatik hamalaugarrenaren bigarren idazatian ezarritako informatizazio planak eta horretarako aurrikusten diren ekintzak igorriko dizkio Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzari, Jaurlaritzaren Informatika Planean eta dagozkion urteko programetan ezar ditzaten.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu honen bidez arautzen diren kontratazio espedienteetatik hau indarrean sar dadinean izapideketa aldian daudenak ireki zirenean ezargarri zitzaizkien arauen menpe jarraituko dute.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabe gelditzen dira Dekretu honetan ezarritakoaren aurka egin dezaten edo horrekin bateraezinak izan daitezen maila bereko eta txikiagoko xedapen guztiak.

llo Autonómico, corresponderá a los servicios competentes del Departamento de Interior, y su aprobación se efectuará por el órgano de contratación.

2.– Los pliegos de prescripciones técnicas serán elaborados por la División de Informática de la U.T.A.P. y serán aprobados por el órgano de contratación previo informe de la Dirección de Organización y Sistemas. El informe de la Dirección de Organización y Sistemas deberá ser emitido en el plazo de quince días naturales a contar desde su solicitud, debiendo entenderse positivo en caso contrario.

3.– En el supuesto de que el informe de la Dirección de Organización y Sistemas del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico sea desfavorable en cuanto a las competencias de los órganos del Departamento de Interior respecto de la contratación propuesta, éste último elevará tal discrepancia al Consejo de Gobierno para su deliberación.

4.– Los informes jurídicos que hayan de incorporarse a los expedientes de contratación a que se refiere el presente Decreto serán emitidos por los servicios competentes del Departamento de Interior.

*Artículo 5.*– En orden a la coordinación de actuaciones en el campo de los bienes y servicios informáticos, el Departamento de Interior remitirá trimestralmente a la Dirección de Organización y Sistemas del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, una relación de los contratos celebrados de conformidad con el presente Decreto, así como una memoria anual sobre la ejecución de los planes y programas informáticos en materia de seguridad pública.

*Artículo 6.*– El Departamento de Interior remitirá a la Dirección de Organización y Sistemas del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico los planes de informatización establecidos de conformidad con lo previsto en el apartado 2 de la disposición adicional decimocuarta de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, así como las previsiones de acciones al efecto, al objeto de su integración en el Plan Informático del Gobierno y en los programas anuales correspondientes.

DISPOSICION TRANSITORIA

Los expedientes de contratación objeto de la regulación que se efectúa por el presente Decreto y que se encuentran en tramitación en el momento de la entrada en vigor del mismo seguirán rigiéndose por las normas que les eran de aplicación en el momento de su incoación.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango contradigan o sean incompatibles con lo dispuesto en el presente Decreto.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Herrizaingo Sailburuari ematen zaio Dekretu honen garapen eta ezarpenerako beharrezko izan daitezen xedapenak emateko aginpidea.

*Bigarrena.–* Dekretu honek EHAAn argitara dadin egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko maiatzak 18.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

Herrizaingo Sailburua,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

Ekonomi eta Ogasun Sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el B.O.P.V.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de mayo de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico
y Desarrollo Autonómico,
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

El Consejero de Economía y Hacienda,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 1892

AGINDUA, 1993ko apirilaren 29koa, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuarena, Arabako patatari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela aintzatetsi eta bere arautegi teknikoa onesten duena.

Irailaren 19ko 203/1989 Dekretuaren bidez, Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela sortu zen, Euskal Herriko Autonomi Elkartean ekoizten diren eta kalitate eta nortasun handia duten elikagaiak bereizi eta babesteko xedeaz.

Eraskineko arautegian deskribatzen den Arabako patatak, kalitate eta nortasun handia ematen dioten zenbait barietate-ezaugarri eta ezaugarri organoleptiko biltzen ditu.

Irailaren 19ko 203/1989 Dekretuko 4 eta 10. ataletan oinarrituta, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eginkizuna izango da ekoizkin batek labelaren barruan sartzeko gaitasunik duenentz erabakitzea eta ekoizkin bakoitzarentzako arautegi tekniko berezia onestea.

Hori dela bide, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* 203/1989 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, honako agindu honetan definitutako ezaugarriak bildu, eta agindu honetan eta indarrean dagoen legerian exigitutako beharkizun guztiak betetzen dituzten kontsumoko patatei, «Arabako Patata» izeneko Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela ematea eta label horren arautegi teknikoa onestea.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### 1892

ORDEN de 29 de abril de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria a la patata de Alava y se aprueba su reglamento técnico.

Por Decreto 203/1989 de 19 de septiembre se creó el Label Vasco de Calidad Alimentaria con la finalidad de distinguir y proteger aquellos productos alimentarios producidos en la Comunidad Autónoma del País Vasco con unas características de elevada calidad y personalidad.

La Patata de Alava descrita en el Reglamento adjunto, cumple determinadas características organolépticas y varietales, que le confieren una elevada calidad y personalidad.

En base de los art. 4 y 10 del Decreto 203/1989 de 19 de septiembre, será el Departamento de Agricultura y Pesca quien reconozca la aptitud de un producto para su inclusión en el Label y apruebe el reglamento técnico específico para cada uno de ellos.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo único.–* De conformidad con lo establecido en el Decreto 203/1989, se otorga el Label Vasco de Calidad Alimentaria: «Patata de Alava», a las patatas de consumo que reúnan las características definidas en la presente Orden y que cumplan todos los requisitos exigidos en la misma y en la Legislación vigente y se aprueba su reglamento técnico.